


## EUSKAL HERRIKO AURRIAK

Herri baten historia eta kultura aurkezterakoan, garaipenak eta eraikinik adierazgarrienak eta ikusgarrienak agertzen dira beti. Hau ikuspegiaren argia da. Baina itzalik gabeko argirik ez dago. Are gehiago: argiak argi nabarmentzeko itzala behar du, marrazkietan itzalak jarritz gero argia berez agertzen dan bezala. Horregatik porrotik gabeko historiarik ez dagoen bezala, aurririk gabeko kulturarik ez dago. Aurriak, gure iraganaren zati baitira eta gure herriaren koadroan bere tokia baitute.

Bestalde, oraindik ere badute zer esanik. Eta oso interesgarria da aurrien bidez iraganaldiak bidaltzen dizkigun mezuak entzutea: Gure arbasoen bizimodua hobeto ulertaraziz, gure sustraien arrastoak aurkeztuz, bere garaiko bizitzan eta gizartean zer nolako eragina izan zuten adieraziz, bere handitasunaren eta edertasunaren jarraipena zerk eta zeinek oztopatu zuen salatuz, e.a.

Arkitektura-hondar edo historiako aurriak, bere bakardadean misterio laino batez estalirik agertzen zaizkigu eta sentiberatasuna duen edozeinentzat inspirazio iturri bilakatzen dira.

Hara, bada, Euskal Herriak eskaintzen dizkigun zenbait ale.




### 1.- Fagollagako zementu fabrika.- Hernani

Historia garrantzizkoa bezain fantastikoa, metalurgiaren atalean, bera hain errotua Hernanin, Hernaniko Aingura Erret Fabrikarena izan zen, alegia. Urumea ondoko burdinolak jarri zituen fabrika aitzindariarena, XVIII. mende erdian. Eraikin hau, arkitektura tradizionalekoa, Fabrika behin betirako gelditu zenean eraiki zen, zementu fabrika gisa. Gaur egun sasiak eta abarrek ia erabat estali dute.




## 2.- Agramondarren gaztelua (1).- Bidache

Nafarroaren historia, neurri batez, Agramondarren eta Beaumondarren arteko borroka da. Nafarroa bitan banatu zenean, baita erlijio gerretan ere, Agramondarrak Nafarroako erregearen ondoan egon ziren; Beaumondarrak ez bezala. Gazteluko aurrealdeko eraikina berreraikuntza errenazentista da (1572-1610) eta bi hegal paralelo ditu, ajimez erako leihoekin eta dagozkien frontoiekin eta bere sarrerako atearekin, zubi altxagarri batez.



### 3.- Baigorriko Andre Maria guztiz garbaren eliza (Oteiza de la Solana)

Baigorri hiribildua zen eta 1234an Teobaldo I.ak foruak berretsi zizkion. Beaumonteneko Luisenak ziren eliza eta jauregia ditu. Bera, Beaumondarrei izena eman ziena, Karlos Bianako Printzearen aldekoa zen, bere aita don Juanen aurka, beroni laguntzen baitzioten Agramondarrek. Gaur egun hutsik da. Estiloz protogotikoa da, XII.-XIII. mendeetako, habearte bakarrekoa, lau ataletan banatua eta zirkulu erdiko absidearekin.



#### 4.- Agramondarren gaztelua (II).- Bidache

Agramondarrak gaztelu berrira joan ziren, Eduardo Printzeak zaharra suntsitu eta bertan ez bizitzeko moduan utzi ondoren, 1262an. Pasabidean kokaturik, ongi zaindu zituzten bai Frantziako erregeek bai Nafarroakoek. 1523an Karlos V.aren soldaduek gazteluari su eman zioten. 1793an berriro erreko zuten, Frantses Iraultzaren garaian. Gaur egun aurri izugarriak daude, hain zuzen, dorrei biribil bat eta bi dorre hegoaldeko sarreran, XV. mendekoak.




### 5.- Orbaizetako arma-fabrika

1786. urtean egin zen kostuen kalkulua; alegia, zein neurritakoak ziren “galdaketarako bi labe muntatuak eta arruntak makina guztiekin, presa, ubideak, ikaztegia, moldatzeko gelak, birfindegia, aroztegia eta sarrailategia, langileentzako eta gainerako jendeentzako gelak, kapera txiki batekin, meza emateko” eta dena 32.000 peso zen. Gaur egun, hango aurriak lurrian daude, erdi lotaturik eta denbora-minez beterik, kanoi eta fusilen hotsetatik urrun, hezetasunak, huntzak eta sasiak janda; uraren musika lagun, ibai itxitik barrena doala.



### 6.- San Sebastian Antiguako eliza - Donostia

Donostia hiriaren hastapenen bila joanik, gaur egun Antigua deitzen den auzora iristen gara. Auzoak baserri-eliza honetatik eta monasteriotik hartu du izena, XII. mendeko testuek halaxe azaltzen baitute. 1096koa da lehen aipamena "Sanctum Sebastianum in ripa maris". "Habearte bakarrekoa zen, baina zabala bera, eta aurrealde itxurosoa zuen eta gainean dorre bat, itxura denez". 1836an, karlistadako gerran, suntsitu zuten.



### 7.- Sasiolako San Frantziskoko monasterioa.- Deba


Behe Erdi Arotik jakina da bazela dorretxe bat, errepidea pasatzen den toki hau babesteko. Sasiola familiarena zen, eta, XVI. mendean, San Frantziskoren monasterioa sortu zen hantxe. Desamortizazioa gertatu ondoren, hutsik geratu zen, eta erortzen hasi. Klaustroa irudika daiteke oraindik, eta XVII. mendean eraikitako eliza ederkien gordetako zatia da.






### 8.- Zuraurriak

Herri baten ondarearen inbentarioa egitean, eraikuntzak zenbatzen diren arren, zenbat eta aberatsagoak izan orduan eta hobe, ezin dezakegu ahantz kultur nortasuna eraikuntzetan bezain ongi islatzen dela aurrietan, askotan azaltzen baitzaizkigu eraiki zituen kulturaren eta erabili zituzten jendeen barne-muinak eta arima aldarrika. Balio dezatela zuraurri hauek zurezko etxolaren omenaldi gisa, Erdi Aroko nekazarien lehenengo etxea izan baitzen XV. mende arte.




### 9.- Monjardineko gaztelua.- Villamayor de Monjardín

Monjardin mendiaren tontorrean Erdi Aroko gaztelu-gotorleku baten aurriak daude. Poligono itxurako oinplanoa zuen, horma lodiak ere bai eta haren islak itsasontzia dirudi. Talaia estrategikoa zen. Handik ikus zitezkeen ederki asko mairuen, karoldarren, Banu Kasitarren, kristauen, borrokak eta liskar erlijioso eta sozio-ekonomikoak. Beren lurra gordetzen ohiturik zeuden gerlarien gotorlekua zen; errege-erreginen hileta eta hilobi tokia.




### 10.- Vitoricako zubia (Laudio)

Zubi zahar honetatik, erromatar jatorri zalantzazkoa bera, argi handiko arku bat baino ez da gelditzen. Harlangaitz hormaz egin da eta, egoera kaskarrean aurkitzeagatik, ikusten da barrukoa harri koskorrez eta zementuz betea. Arkuari bi pilarek eusten diote, baina ez da ikusten ez zubi-branka ez ezproi arrastorik inon. Duela gutxi, dotore zaharberitu dute.



### 11.- Kaltzinazio labeak Muskizen

Baserritarrek lurrari kentzen badizkiote igaliak bizitzeko eta gustuagatik soilik, meatzariek lurra zulatzen dute mea ateratzeko. Mea, gero, garbitu, araztu eta kaltzinatu egingo dute labeotan. Hortik aterako da burdina metaliko gordina, totxoa, burdinolen eta metalurgi industriaren lehengaiak; izan ere, delako industria horrek sekulako garrantzia izan du gure herriaren ekonomian.



## 12.- Baserria

Gure baserria, produkzio gune gisa, XII. eta XIII. mendeetako da, nahiz guk ezagutzen dugun irudi arkitektonikoak 500 urte baino gehiago ez eduki. XVI. mende amaierako krisialdiak baserriaren garapena ekarri zuen berarekin, Indietatik ekarritako hazi bati esker: artoari esker hain zuzen. XVIII. mende amaieran etorri zen baserriaren gainbehera, eta industrializazioak azken kolpea eman zion. Eta hor dago, behar bezain ez erabilia, ea noiz aurkitzen dugun “gure aitaren etxea defenditzeko” moduren bat.